



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN LIBURU ZURIA

Sarrera

1. Europar Batasuneko elikagai politikaren oinarria elikagaien segurtasunari buruzko arau zorrotzek osatu behar dute; izan ere, arau horiek babestu eta sustatu behar dute kontsumitzaileen osasuna. Edozein gizartetan ezinbestekoa da elikagaiak ekoitzi eta kontsumitzea, eta horrek eragin ekonomikoak, sozialak eta, maiz, ingurumen arlokoak izaten ditu. Beraz, alderdi horiek ere aintzat hartu behar dira elikagaien politikak garatzean, nahiz eta osasuna babesteak izan lehentasuna.
2. Nekazaritzako elikagaien sektoreak garrantzi handia dauka Europako ekonomian. Elikagaien eta edarien industria EBko industria sektore nagusietako bat da.
3. Kontsumitzaileek eskura izan beharko lituzkete estatu kide guztietako kalitate maila altuko produktu seguru ugari. Horixe da, hain zuzen ere, barne merkatuaren oinarritzko funtzioetako bat. Elikagaien segurtasunari buruzko politika eraginkorrak elikagaien ekoizpenaren izaera, euren arteko mendekotasun izaera, islatu behar du.

Horrek kontsumitzaileen osasunerako arriskuak —lehengaiekin, nekazaritzako jarduerekin eta elikagaiak prozesatzeko jarduerekin lotuta daudenak— zehaztea eta aztertzea dakar, arrisku horiek kudeatzeko arauzko neurriak hartzea dakar, eta araudi horiek ezartzen direla ziurtatu eta bermatzeko kontrol sistemak ezartzea eta funtzionamenduan jartzea dakar.

4. Egintza horiek guztiek, beraz, elikagaien segurtasunaren esparruko ikuspegi orokor eta integratua eskatzen dute. Aurreko guztiak ez du esan nahi EBk izan behar duenik elikagaien segurtasunaren alderdi guztien arduradun bakarra; baina, horiek Europa mailan jorratu behar dira.
5. Beharrezkoa da elikagaien segurtasuna antolatzeko moduaren koordinazioa eta integrazioa sendotzea, horrek ahalbidetu egingo baitu dauden gabeziak jorratzea eta, neurri berean, elikagaien segurtasunaren esparruan mundu mailan aitzindaria izango den esparrua osatzea. Esparru horrek bermatu egin beharko du osasun publikoaren eta kontsumitzaileen babesaren maila handia dela, EEko itunaren aginduekin bat. Nolanahi ere, sistema osoenak ere funtziona dezan, beharrezkoa da alde interesdun guztiek parte hartzea. Sistema ororen funtzionamendu egokirako ezinbestekoa da estatu kideen, interesdunen eta beste herrialde batzuen konpromisoa.

Elikagaien Segurtasunaren printzipioak

- ♣ Printzipio arautzailea da elikagaien segurtasunari buruzko politikak planteamendu orokor eta integratuan oinarritu behar duela, hau da, elikakate osoan zehar ("abeletxetik mahaira"). Elikagaien sektore guztietan. Elikagaien segurtasunaren esparruko ardatzek (aholkularitza zientifikoa, datuak bildu eta aztertzea, araudi eta

kontrol arloko alderdiak, kontsumitzaileei eman beharreko informazioa) talde uniformea osatu behar dute, planteamendu integratu hori lortze aldera.

- ♣ Komenigarria da argi definitzea zein betekizun duen elikakateko partaide bakoitzak (animalientzako elikagaien ekoizleak, nekazariak, giza kontsumorako elikagaien ekoizleak edo manipulatzaileak, estatu kideetako eta beste herrialde batzuetako erakunde eskudunak, Batzordea, kontsumitzaileak): lehenengoak elikagaien segurtasunaren arduradun nagusiak dira; erakunde eskudunek, zaintzarako eta kontrolerako sistema nazionalen bidez, kontrolatu eta bermatu egiten dute betekizun hori bete egiten dela; eta Batzordeak balioetsi egiten du, nazio mailako auditorien eta ikuskaritzen bidez, erakunde eskudunen gaitasuna sistema horiek emateko.
- ♣ Elikagaien politika eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da animalien eta gizakien kontsumorako elikagaien eta horien osagaien trazabilitate sistema. Prozedura egokiak behar dira trazabilitate hori bideratzeko, besteak beste: aipatutako elikagaien ekoizpen enpresek derrigor bete behar dituzte prozedura egokiak elikagaiak merkatutik kentzeko, baldin eta kontsumitzailearen osasunerako arriskua dagoela atzematen bada.
- ♣ Planteamendu orokor eta integratuak ahalbidetu egingo du elikagaien politika koherenteagoa, eraginkorragoa eta dinamikoagoa izatea. Politika hori etengabe gainbegiratu beharko da, eta, beharrezkoa bada, aldatu egin beharko da akatsak konpontzeko. Halaber, erantzun egin beharko die arrisku berriei, eta ekoizpen kateko aurrerapenetara egokitu beharko da. Aldi berean, planteamendu hori modu gardenean garatu behar da, eta, horretarako, interesdun guztien parte hartzea sustatu behar du.
- ♣ Arriskuen balioespena izango da elikagaien segurtasunari buruzko politikaren oinarria, eta politika horrek arriskuen balioespenaren hiru osagaiak izango ditu oinarri: arriskuak balioztatzea (aholkularitza

zientifikoa eta datuak aztertzea), arriskuak kudeatzea (araudiak eta kontrola) eta arriskuak jakinaraztea.

Elikagaien Segurtasunari buruzko politikaren oinarritzko elementuak

Aztertzea eta zaintzea

Batzordeak informazio zabala jasotzen du elikagaien segurtasunarekin lotutako gaiei buruz. Informazio iturri nagusiak honako hauek dira: osasun publikoa gainbegiratzeko eta zaintzeko sareak, zoonosia zaintzeko planak, alerta azkarren sistemak, nekazaritza sektoreko informazio sistemak, ikerketa jarduerak eta ikerketa sare elkartuak. Hala ere, dauden sistemak modu independentean sortu dira, eta, ondorioz, ezin da beti bermatu informazio iturrien arteko koordinazioa.

Erkidegoak sistema osoa eta eraginkorra behar du, elikagaien segurtasuna aztertzeko eta zaintzeko, eta sistema horretan informazio iturri guztiak sartuko dira. Lehenengo helburuak izan behar du informazioa etengabe eta egunero kudeatzea eta eguneratzea, gerta daitezkeen arriskuen aurrean berehalakoan erreakzionatzeko.

Alerta sistemak

Arlo batzuetan dauden jakinarazpen sistema guztiak ez dira mota berekoak. Honako hauek dira sistema horietako batzuk: kontsumitzaileentzako elikagaien alerta azkarren sistema pertsoneri eta animaliei transmititu ahal zaizkien gaixotasunen arloan, ECURIE sistema larrialdi erradiologikoetarako...

Ikerketa

Zientzia bikaintasuna lortzeko beharrezkoa da ikerketan eta garapenean inbertsioak egitea, elikagaien segurtasunaren esparruko ezaguera zientifikoaren oinarria zabaltzeko. Ikerketaren esparruan, Europa mailan,

elikagaien segurtasunaren esparruko hainbat ikerketa eta garapen proiektu garatzen dira urte anitzeko lan egitasmoetan oinarrituta. Horien helburuak dira, batetik, ezaguera zientifikoa hobetzea eta, bestetik, zientzia oinarri sendoa ezartzen laguntzea, politikak eta araudiak osatu ahal izateko.

Gizakien osasunerako arriskua atzeman daitekeen kasuetan, maiz *ad hoc* ikerketari heldu behar zaio luze gabe.

Zientzia lankidetz

Erkidego osoko erakunde eta elkarte nazionalak zientzia informazioa biltzen dute elikagaien segurtasunarekin lotutako arlo ugarietara buruz. Hori zientzia lankidetzaren sistemaren esparruan (SCOOP) gertatzen da.

Azterketa arloan laguntza

Europako laborategien erreferentziazko sistema ezarri da animalia jatorriko produktuentzat, Batzordeari eta estatu kideei azterketa arloan laguntza espezializatua eman ahal izateko. Hautemate metodoak garatzen dituzte eta estatu kideetako laborategiei lagundu egiten diete metodo horiek aplikatzen.

Zientzia informazioa da elikagaien segurtasunari buruzko politikaren oinarria. Argi dago elikagaien segurtasunari buruzko aholkularitza zientifikoa ahalik eta kalitate maila oneneko izan behar duela. Modu egoki eta fidagarrian eskaini behar zaie informazio hori kontsumitzaileen osasuna babesteko erabakiak hartu behar dituzten arduradunei.

Aholkularitza zientifikorako sistema

Batzordeari aholkularitza zientifikoa eskaintzen dion sistema 1997an birmoldatu zuten, eta azpimarratu egin ziren gardentasunaren, bikaintasunaren eta independentziaren funtsezko printzipioak. Sektoreko zortzi zientzia batzordek ematen dituzte irizpenak. Gainera, Zientzia Batzorde Zuzentzailea osatu da, diziplina anitzeko alderdiei buruzko aholkularitza emateko.

Batzorde horietako kideak hautatzeko, modu zorrotzean aztertzen da horien zientzia bikaintasuna lan egiten duten arloan. Horien independentzia bermatzeko, zorrotz aplikatzen dira interesen adierazpenak.

Batzordeak derrigor kontsultatu beharra

Elikagaien segurtasunaren esparruko legediaren zati bat egiteko, beharrezkoa da Batzordeak zientzia batzorde bati galdetzea osasun publikoan eragina izan dezaketen proposamenak egin aurretik. Hori ez da arau guztietan betetzen modu sistematikoan; beraz, egoera berraztertu beharko da elikagaien segurtasunaren esparruko lege guztiak zientzia irizpen independenteetan oinarritzen direla bermatzeko.

Europako Elikagai Erakundea osatzea

Batzordeak uste du beharrezkoa dela Europa mailako Elikagai Erakundea eratzea. Erakunde horrek tresnarik eraginkorra eman beharko du publikoa babesteko eta kontsumitzaileen konfiantza berreskuratzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko. Herritarren interesa izango da Erakunde horren xede nagusia.

Erakundearen ekintza esparrua

Erakundearen lana arriskuen azterketa prozesuaren baitan definitu behar da, eta prozesu horrek hiru fase ditu: balioespena, kudeaketa eta jakinarazpena.

Arriskuen balioespenaren helburua da aholkularitza zientifikoa ematea. Datuak bildu eta zehatz aztertzea aldeztu aurretik egin beharreko prozesuak dira, aholkularitza zientifiko sendoa eta eguneratua lortuko bada.

Legegintza eta kontrola arriskuen kudeaketaren bi osagai dira. Legegintzaren ondorioa da erabaki politikoa, eta ezagutza zientifikoan

oinarritutako ezagutzaz gain, esparru handiagoa hartzen du kontuan: gizartearen nahiak eta beharrianak ere aintzat hartzen ditu. Banaketa garbia egin behar da arriskuen kudeaketaren eta zehaztapenaren artean.

Arriskuak jakinaraztea funtsezko elementua da kontsumitzaileei informazioa ziurtatzeko eta elikagaien segurtasunaren esparruan oinarririk gabeko alarmak sortzeko aukerak murrizteko. Zientzia irizpenak azkar eta era zabalean hedatzea eskatzen du. Gainera, kontsumitzaileek erraz eskuratzeko eta ulertzeko informazioa izan behar dute, irizpen horiei dagokienez nahiz euren osasunaren babesarekin zerikusia duten garrantzi handiagoko gaiei dagokienez.

Europako Elikagai Erakundearen helburuak

Europako Elikagai Erakundearen helburu nagusia da elikagaien segurtasunaren arloan kontsumitzaileen osasunaren babes maila altua lortzen laguntzea. Babes maila horrek kontsumitzaileen konfiantza berreskuratzea eta mantentzea ahalbidetu behar du.

Erakundeak honako funtsezko printzipio hauek gorde behar ditu: independentzia, bikaintasuna eta gardentasuna.

Horretarako, Erakundeak honako hauek egin beharko ditu:

- Ezagutza zientifiko onenei jarraiki aritu.
- Politika eta industria interesetatik independentea izan.
- Onartzea kontrol publiko zorrotzaren menpe egon behar duela.
- Erreferentzia zientifiko aitortua izatea.
- Nazio mailako erakunde zientifikoekin hertsiki lan egitea.

Europako Elikagai Erakundearen lanak

Erakundea arduratuko da aholkularitza zientifikoaz, informazioa bildu eta aztertzeaz eta arriskuak jakinarazteaz.

Aholkularitza zientifikoa: Erakundeak aholkularitza zientifikoa eta informazioa eman behar dizkio Batzordeari, elikagaien kontsumoak

kontsumitzaileen osasunean eta segurtasunean zuzenean nahiz zeharka eragina duten gai guztiei buruz.

Informazioa bildu eta aztertzea: premiazkoa da gaur egun Erkidegoan nahiz mundu mailan elikagaien segurtasunari buruz dagoen informazioa hautatu eta erabiltzea. Esparru horretan hobekuntzak egiteko tarte handia dago.

Komunikazioa: kontsumitzaileekin elikagaiei buruz zuzenean eta era irekian komunikatzeko ahalmenak garrantzi publiko handia emango dio Erakundeari. Xedapen zehatzak hartu beharko ditu alde interesdun guztiei bere ondorioen berri emateko: zientzia irizpenei dagokienez zein ikuskatze eta zaintza programen emaitzei dagokienez.

Krisiaren aurreko erantzuna

Elikagaien segurtasunaren esparruan larrialdia sortzen denean, Erakundeak beharrezko informazioa bildu eta aztertuko du, eta Batzordeari eta estatu kideei banatuko die. Gainera, ahalik eta aholkularitza zientifiko onena emateko beharrezkoak diren baliabide zientifikoak erabiliko ditu. Azkar eta era eraginkorrean erantzun beharko dio krisi egoerari, eta funtsezko lekua izango du EBren erantzunaren babesle gisa.

Sareak sortzea zientzia agentzia eta erakunde nazionalekin

Europako Elikagai Erakundea balio erantsia ematen duen egitura izango da: elkarlan hertsia egin beharko du elikaduraren segurtasunaz arduratzen diren zientzia agentzia eta erakunde nazionalekin, eta euren ezagutza berezia baliatu beharko du. Horrek dauden egitura eta baliabideak era ezin hobean erabiltzea ekarriko du.

Lotura Batzordeko zerbitzuekin

Erakundeak eta Batzordearen zerbitzuek elkarlanean aritu beharko dute, hertsiki. Horrek legeak egiten eta aplikatzen dituzten nahiz kontrolak eta ikuskatzeak (EAB) egiten dituzten arduradunei eragiten die, baita ikerketari

eta garapenari buruzko politika erkidearen arduradunei ere. Loturak Erakundearen emaitzak era ezin hobean erabiltzea ahalbidetuko du.

Araudiaren alderdiak

Legeak idaztea eta sortzea Batzordearen, Parlamentuaren eta Kontseiluaren eskuduntza izaten jarraituko du.

Legegintzak aurrera egin du azken urteotan, baina bilakabide horretan ez da egon joera koherente orokorrik. Hori dela eta, EBko elikagaien inguruko legegintzaren printzipio orokorrak jasotzen dituen Liburu Berdeak jada aurreikusten zuen legegintza hau sakonki berrikusi behar zela.

- ♣ Esparru juridiko berria elikagaien segurtasunerako: beharrezkoa da elikagaien segurtasunaren esparruan arau koherente eta gardenen multzoa izatea.
- ♣ Esparru juridiko berria animalientzako elikagaietarako: animalia jatorriko elikagaien segurtasuna animalientzako elikagaien segurtasunetik hasten da.
- ♣ Animalien osasuna eta ongizatea: elikagaiak ekoizteko erabiltzen diren animalien osasuna eta ongizatea funtsezkoak dira osasun publikorako eta kontsumitzaileen babeserako.
- ♣ Higienea: higienearen ikuspuntu koordinatu eta holistikoa funtsezko elementua da elikaduraren segurtasunari dagokionez.
- ♣ Kutsagarriak eta hondakinak: horien mugak ezarri eta kontrolatu behar dira.
- ♣ Elikagai berriak: beharrezkoa da elikagai berriei ezarri ahal zaizkien xedapen erkideak indartzea eta sinplifikatzea.
- ♣ Gehigarriak, aromak, paketatzea eta erradiazio ionizatzailea: beharrezkoa da horiei buruzko legegintza erkidea eguneratu eta osatzea.

- ♣ Larrialdietarako neurriak: babeserako neurriak hartzeko aukera funtsezko lanabesa da elikagaien segurtasunaren esparruko larrialdiak kudeatzeko.
- ♣ Erabakiak hartzeko prozesua: erabakiak hartzeko prozesua arrazionalizatzen eta sinplifikatzen saiatu gara, eraginkortasuna, gardentasuna eta azkartasuna bermatze aldera.

Kontrolak

Beharrezkoa da legegintzako testu zehatza izatea kontrolaren esparruko xedapen ezberdinak bateratzeko. Aintzat hartuko du elikakatearen katebegi guztiek kontrol ofizialen menpe egon behar dutela esaten duen printzipioa. Beharrezkoa da estatu kideek zuzentarau erkideen transposizioa zaintzea eta arau erkideak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.

Legegintza erkidearen exekuzioaren kontrolak

Kontrol sistemak ezarri beharko dira xedapen erkideak gordetzen direla bermatzeko eta, hala badagokio, aplikazioa egiten dela ziurtatzeko. Sistema horiek erkidego mailan garatu behar dira, ikuspuntu bateratua izaten jarraitzeko.

Kontrol sistema horietan eraginkortasuna ziurtatu ahal izateko, Batzordeak, Elikadura eta Albaitaritza arloko Bulegoaren (EAB) bidez, ikuskatze programa garatzen du.

Begi bistakoa da beharrezkoa dela esparru erkidea definitzea kontrol sistema nazionaletarako, erkidego mailako kontrolak hobetze aldera. Esparru erkide horrek oinarritzko hiru elementu izango ditu:

- ♣ Lehenengo elementua maila erkidean definitutako funtzionamendu irizpideek osatuko dute, agintari nazionalak gorde beharrekoak. Irizpide horiek funtsezko erreferentzia puntuak eratuko dituzte, EABarentzat baliagarriak izango direnak agintari eskudunak ikuskatzeko.

- ♣ Bigarren elementua da kontrol orientabide erkideak egitea. Horien bidez, estrategia nazional koherenteak sustatuko dira eta lehentasunak ezarriko dira arriskuen eta kontrol prozedura eraginkorrenen arabera.
- ♣ Esparruko hirugarren elementua administrazio kooperazio hobea lortzea da kontrol sistemak garatu eta kudeatzean.

Kontsumitzaileen informazioa

Arriskuen jakinarazpen prozesua

Arriskuen jakinarazpena ezin da izan informazioaren transmisio pasiboa, ezpada transmisio interaktiboa. Gainera, elkarrizketa eta agente interesdun guztien erantzuna eskatzen du.

Etiketatzea eta publizitatea

Kontsumitzaileei funtsezko informazio zehatza eman behar zaie jakinaren gainean hautatu ahal izateko.

Nutrizioa

Kontsumitzaileek gero eta interes handiagoa dute erosten dituzten elikagaien nutrizio balioaren inguruan, eta gero eta beharrezkoagoa da kontsumitzen dituzten elikagaiei buruzko informazio egokia ematea.